


## ERLEZAINZA ANTOLATZEKO DEKRETUA

Administrazio-izapideak errazten ditu eta malgutasun handiagoa eskaintzen du erlezaintzako produktuak ustiatzean bertan lortzeko.



### USTIATEGIAN ERAUZTEA ETA ONTZIRATZEA

Ustiatzearen titularrari **bere lokalean erazten eta ontziratzen** uzten zaio. Lokal horrek bete beharreko oinarriko **baldintza higieniko eta sanitarioak** ezartzen dira.

### ERRAZTAZUN DOKUMENTALA

Erregistroan **alta emateko edo aldatzeko** eskatzen den **informazioa** eta **ustiapen-liburuaren edukia** eguneratzen dira. Eguneratze horiek kontuan hartzen dituzten dokumentu horien **formatu berriak argitaratu** dira.



### BERARIAZKO ETIKETATUA

Ustiatzean bertan atera eta ontziratutako produktu hauek berariazko **etiketatze-baldintza espezifikoak** izango dituzte, gainerakoetatik bereizteko.

«*Producido, extraído y envasado en la explotación ES\*\*\*\*\**».

### EKOTIPOAK IDENTIFIKATZEA

Hemendik aurrera, ustiatzean dauden **erleen arraza-ekotipoei buruzko informazioa** eskatuko da.



Euskadiko erle arraza-ekotipo autoktonoa Erle beltz iberiarra da

*Apis mellifera iberiensis*



### ERLAUNTZEN KOKAPENA

Ustiapenaren kokapen bakoitzari **UTM koordenatuak** eskatuko zaizkio, eta lurraldeko elementuekiko distantziak eguneratzen dira.

### ERLATEGIA SEINALEZTATZEKO KARTELA

Erlategiak nahitaez seinaleztatzeko **karteletan aipamen berria** baimentzen da:

«*Abejas trabajando / Erleak lanean*».



### UDALAREN BAIMENA

Erlategiak udal-baimena eskatetik **salbuesten dira**, eta **erazteko eta ontziratze**ko lokalei **bakarrik** eskatuko zaie (50/2025 Dekretua).

Informazio gehiago Foru Aldundietako Abeltzaintza Zerbitzuetan eta [www.elika.eus](http://www.elika.eus) gunean.

